

II. ERANSKINA

ESKABIDE INPRIMAKIA (pertsona juridiko pribatuak)

Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2013ko ekainaren 5eko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza; agindu horren bidez, EAEn, lur-zaintzailatza barne hartutako ondare naturala kontserbatzeko jarduerak finantzatzeko laguntzen 2013rako deialdia egiten da.

Erakundearen izena:

Ordezkararen izen-abizenak eta NAN:

Identifikazio fiskala:

Helbidea:

Herria: Posta kodea: Lurralde historikoa:

Telefonoa: Faxe: E-maila:

Eskatutako diru-laguntza:

Erantsi heharreko dokumentutak:

☐ Eskatzailearen NANaren eta dagokion ordezkapen ahalordearen kopia, baita identifikazio fiskalaren kopia eta erakundearen estatutuen eta haien aldaketen kopia ere. 2012ko ekitaldiko jardueren memoria, erakundeak onartutakoa, eta irabazi-asmorik gabeko erakundea dela egiaztatzeko euren xedearen definizioa edota beraien xedea egiaztatzen duen beste edozein agiriren kopia.

☐ Memoria deskribatzailea. Bertan, ondo zehaztuta honako hau jaso beharko da: lur-zaintzailatza akordioaren edukia (honen kopia erantsiko da), akordioaren iraupena, helburuak, jarduerak egingo diren tokiaren mugaketa eta planoak, epeak, ekintzaren hedapen eta garapena. jardueraren aurrekontu osoa, (partidaka xehatuta, V. eranskinaren arabera) eta jarduera betearazteko egutegia.

☐ Beharrezkoa denean, udaleko hirigintza lizentzia egokia eta, behar izanez gero, sektorekako Administrazio eskudunaren manuzko baimen edo lizentzia.

☐ Beste pertsona edo erakunde batzuek helburu horrexetarako emandako beste diru-laguntza batzuen zenbatekoen adierazpena (halako diru-laguntzarik egonez gero, IV. eranskinaren arabera).

☐ Ogasun eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak bete diren egiaztariak.

Eskatzaileak aditzera emango du eskabide honekin batera datorren dokumentazioaren barruko datu guztiak egiazkoak direla, diru-laguntzak bete gabeko gastuari aurre egiteko finantza-gaitasun nahikoa duela eta bete egiten dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak.

Halaber, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kenduta zigortuta edo zehatuta ez dagoela ere adieraziko du, eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekuren batean sartuta ez dagoela ere bai.

Hortaz, aipaturiko aginduan ezarritakoaren arabera, finketan eskabidearekin batera datorren dokumentazioan adierazitako aurrekontuen arabera jarduerak egiteko laguntza jasotzeko eskabidea egiten du.

..... n, 2013ko ren an.

Sinatuta:

Eskatzailearen edo horren ordezkariaren sinadura